


Gogoan hartu damutu baino lehen

Seguru egoteko,  fidatu zure artekariarekin.

Zure artekariak beti emango dizu informazioa... Ez bazaude seguru, bila gaitzazu

Hileroko buletina
Nº 28 / Ekaina 2015

Bidaia Aseguruak: “Urrats txiki bat gizakiarentzat, baina jauzi handi bat gizateriarentzat”



Costa Ricako Parke Nazionala bisitatu baduzu inoiz, irakurriko zenuen sarrerako kartelean idatzita dagoela “Katu basatiren batekin topo egiten baduzu, gogoan hartu gomendio hauek. Basapiztia agertzen bada, jarraibide hauek hartu kontuan: zaindu tartea eta begiratu begietara. Hurbilduz gero, hitz egin iezaiozu ozen eta jaso besoak, zeure burua defendatu eta borrokatu animaliak erasotzen bazaitu, ez egin korrikarik ezta bizkarra eman...”

Bidaiatzea beti da arriskutsua oihanean sartu ez arren. Gazteek Done Jakue bidea egiten dute eta kanpaldietara joaten dira, exekutiboek eta langileek bidaiatu egiten dute lan-kontuengatik, eta gure nagusiak, halaber, hondartzara joaten dira atsedean bila egunero hartu beharreko botikak besapean ditzutela.

Zertarako bidaia-asegurua?

Oporretan, kirola praktikatzean, etxetik kanpo negoziokoak egitean edota ikasten duzunean beti ezbeharren bat gerta daitekeelako eta horrek bidaia hondatu eta diru asko kosta diezagukeelako. Imagina ezazu trenetan maleta lapurtzen dizutela zure objektu pertsonal guztiekin, edo hanka apurtzen duzula surf egiten, edota Erroman gaixotzen zarela familiarekin zilarrezko ezteiak ospatzen ari zarela.

Gauza horiek guztiak gertatu egiten dira eta aurrea har diezakezu. Onena nora zoazen guri esatea da. Geuk erabakiko dugu nola babestu. **Bidaia-aseguru on bat izatea**

aurreztea da, ezbeharren bat gertatzen bada. Gastu hauek badituzu kalte-ordaina jaso dezakezu: mediku-laguntza, aberriatze sanitarioa, mediku-zentroetara garraioak, ekipajeak lokalizatzea, baita lege-laguntza ere...

246 milioi deuseztatzeetan

Bidaia-aseguru bat kontratatzen duzunean, egiaztatu deuseztapenaren bermea duela. Iazko udan, espainolek 246 milioi euro gastatu genituen deuseztapenetan. Pertsonako gastuaren batez bestekoa 300 eurokoa izan zen. Arrazoiak: gaixotasuna edo istripua.

Gehienetan askoz gehiago gozatzen dugu bidaia imajinatuz eta zeinen ondo pasatuko dugun pentsatuz. Baina... denbora eta dirua aurrezteko, den-dena planifikatu behar dugu.

Nora joan nahi duzun erabaki eta arriskuak aseguratu eta gero, erosi hegazkinetako edo trenetako txartelak aurrez merkeagoak direlako. Bilatu gustuko dituzun hotelei buruzko iritziak, hautaketan asmatzeko. Zehaztu bisitatu nahi dituzun lekuak eta egin ibilbide bat. Bildu informazioa inguruko kulturari eta ohiturei buruz (eta badakizu, “zer ikusi, hura egin”). Eta kalkulatu aurrekontu bat eta horri gehitu % 10-15 estra bat. Marjina hori aurreikusten baduzu, edozein ustekaberi aurre egin ahal izango diozu larritu gabe.

Ondo pasal! Eta... bueltan ikusiko dugu elkar.

73 milioi Campofriorentzat aurrerakin gisa Burgosko suteagatik.

Aseguruak horrelako egoerei aurre egiteko gaude

Aseguruek behar dituzunean funtzionatzen dute. Hori uste du, behintzat, Campofriok Burgosko fabrikako sutearen ondoren. Azaroaren 16an lantegiaren 70.000 metro koadro erre ziren. Remedios Orrantia Giza Baliabideetako zuzendariaren esanetan, enpresak “aseguru-programa sendo bat zeukan, estaldura-egitura sendo batekin. Oso garrantzitsua da hori, inoiz erabiliko ez duzun zerbait dela pentsatzen duzulako eta halako ezbehar larri bat gertatu arte ez duzulako benetan aintzat hartzen horrelako programa baten balioa”.

Gu horrelako egoerei aurre egiteko gaude

Horrela erantzun zuten konpainiek ezbeharren ondoren. Hori da gure lanaren arrazoiak, aseguru-artekari gisa: zure arriskuak kudeatu polizarik onena bilatuz.

Campofrió 73 milioi euro jaso ditu aurrerakin gisa sutearen kalte-ordainarengatik. 2014ko urteko kontuen memoriak adierazten du galeren eta aparteko sarreraren efektuak 25 milioi euroko saldo positiboa erakusten duela. Aseguruari esker, enpresak ez du inpaktu negatiborik izango haren ondarean.

Zer estaltzen du zure aseguruak?

la dena: Burebako produkzio-lantegiak jasandako kalte materialak eta ezbeharren ondoriozko salmentamurrizketek eragindako mozkin-galera. Enpresak salmentak berreskuratzeko egiten dituen gastu gehigarriak ere konpentsatzen dira.

Enpresak haren memorian adierazten du: **“sozietateak aparteko konpentsazio bat jasotzea espero du kalte materialen, mozkin-galeren eta gerta daitezkeen aparteko kostuen kalte-ordain gisa... dezbeharren datatik hurrengo 12 hilabetetan”.** Horrela bada, aseguruak aukera eskainiko dizute “lehenagoko lantegiaren parteko ahalmena duen lantegi berri bat jartzeko balioaren osotasuna estaltzeko”.

Edozein enpresak, edozein tamainakoa dela, aseguru ditzake ustekabe horiek. Zure konfiantzarekin Espainiako 10 enpresetatik 7k gaizki aseguraturuta egoteagatik ixtea saihestu genezakeen.

5 Aurrezki Plana, zerga-salbuespenekins : “Ez utzi biharko gaur egin dezakezuna”



“Bihar baino hobeto, gaur” (“On Kixote”) edo “izapiderik txarrena, egiten ez dena”...

Espainiako esaera zahar ugari adierazten digute gauzei lehenbailehen heldu behar zaiela. Pentsamendu horien benetako esanahi da alferkeria albo batera utzi behar dela eta egiteko dauzkagunak lehenbailehen konpondu behar direla.

Gaur Epe Luzera aurreztera gonbidatu nahi zaitugu zerga-salbuespenak aprobetxatzetako **intereskonposatuaren** onurak erabiliz. Inbertsio-epe bakoitzaren bukaeran lortzen diren interesen metatsetik sortutako dirua da, hasieran egindako ekarpena berrinbertitzean kapitalizatzearen ondorioz sortutakoak.

Epe luzera aurreztearen abantailak

Epe Motza urte 1 da, Epe Ertaina 2-5 urte artekoa eta Epe Luzea 5 urtetik gora.

Aukera horren izena **SIALP** (Seguro Individual de Ahorro a Largo Plazo) da (**ELAAI**: Epe Luzeko Aurrezkiaren Aseguru Indibiduala). Eta azken zerga-erreforman zehaztutako aurrezki-produktu berri horrekin, **zuk zeuk zehazten duzu “neurria” zure aurrezki-maila** eta libreki ezartzen duzu edozein unetan alda dezakezun ekarpenen egutegia.

Legeak ezartzen dituen baldintzak lor daitezkeen abantailak gozatzeko hauek dira:

- **Urtean 5.000 €-ko ekarpenak, gehienez ere.** Zeuk erabakitzen duzu aldizkako primekin edo prima bakarrean egiten duzun eta ekarpen hori alda dezakezu nahi bezala, gehienezko muga gainditzen ez baduzu.
- Interesek ez tributatzeko **gutxieneko iraupena 5 urtekoa da;** nahiz eta **lehenengo urtea betetzen denetik likidezia** eduki, baina zerga-salbuespenarengatik.
- **Aurrezki-plan indibidual bakar bateko titularra soilik izan zaitezke.**
- **Heriotzagatiko eta bizirauenagatiko** estaldurak eskaintzen dira.
- **Bermatzen den kapitala** ordaindutako primen % **85ekoa** da, gutxienez.

Horregatik guztiagatik, **aukera bikaina da zure aurrezkiak haz daitezen erretiro-garairako. Kontsulta iezaguzu. Profesionalak gara** eta zehatz-mehatz azal diezazukegu guztia.

Ikerketa

Aseguratuak ezingo dute polizaren zenbatekoa igo Osasun-arazoak edukitzeagatik

Kongresuan izapidetzen ari den Aseguru Lege berrian ezartzen da aseguru-etxeei eragotzi egingo zaiela polizaren zenbatekoa handitzea aseguruak osasun-arazoak dituenen. Aseguruaren Zuzendaritza Nagusiaren arabera **“aseguratuaren osasunak okerrera egitea erakundeak berak estali beharreko arriskua da. Horrela ez balitz, aseguru-mota hauen izaera indargabetuko litzateke”.**

AGaur egun, prezioak gora egiten du % 30 arte, osasun-beharrak dituztenen artean. Aseguru-etxe askok kanpaina bortitzak jartzen dituzte martxan oso prezio baxuekin bezeroak erakartzeko asmoz. Gero, baina, faktura handitzen joaten dira, ezbehar-tasak gora egin ahala.

Aseguru-artekariak ekimen hori txalotu dugu, kontsumitzaile gisa dituzun eskubideak bermatzen dizkizulako osasun-aseguratuaren izaera errespetatuz, hots, beharrak dituztenak babestea. **Gure ustez edozein pertsonak du arrazoizko prezioan Osasun-zerbitzu pribatuak gozatzeko eskubidea.**

Heriotza Asegurua egiptoarrek asmatu zuten

Heriotza Aseguruaren historia K.a. 2.225. urtean hasi zen idazten, Egipton, karaktere kuneiformeekin. Ehorzketa-erritu garesti haiek zer pentsatua eman zieten faraoien herritarrei, geroko bizitzan “onik” sartu nahi baitzuten”.

Ondasun gehien zituzten egiptoarrek elkartetan biltzen ziren ehorzketa-errituak ordaintzea bermatuko zuen kuota bat ordaintzeko. Bazkideetako bat hiltzen zenean, gainerakoek ordaintzen zituzten gastuak aurrezketako diruarekin.

Gaur egungo Heriotza Aseguruaren aitzindaria da, hiletaren eta ehorzketa fakturak estaltzen baititu. Ondo gogoan dugu oraindik Poliza kobratzeko Espainiako herrietan etxer etxe zebilen agentea. Ondo hartzen zuten leku guztietan, ordainagiri bakoitzarekin aseguruak gogoratzen zutelako oraindik ere mundu honetan zeudela, bizitzaz gozatzea bazeukatela eta “beste munduko bidaia” hura prestatzea zeukatela”.



Anekdotak

